

24. KORRIKA: BIDEO LEHIAKETA

Martxoaren 19tik 29ra Korrikaren 24. edizioa egingo da, Atharratzetik Bilbora. Oraingoan ere, Korrika bideo lehiaketa antolatu dute Etxepare Euskal Institutuak eta Korrikak.

Helburuak

- Etxepare Euskal Institutuaren irakurletzetan euskara ikasten ari diren pertsonak Korrikarekin bat egitea.
- Munduko Euskal Etxeetako komunitateak Korrikarekin bat egitea.
- Korrika hasi aurretik giroa berotzea.

Nori zuzendua

- Etxepare Euskal Institutuak mundu osoan zehar dituen irakurletzetako ikasleei eta Euskal Etxeetako euskara ikasle eta komunitateari.

Lehiaketaren deskribapena

Munduan zehar euskara ikasten ari diren ikasleek eta Euskal Etxeetako euskara ikasleek Korrikari babesa emateko bideo lehiaketa antolatu da.

Sariak

- Irakurletzak: bi ikastaro online (ikastaro bakoitza 75 ordukoa eta 3 hilabetetan zehar egitekoa) edo ikastaroaren balio bereko material sorta baten ordezkari daiteke -bidalketa barne-, hala izanez gero.
- Euskal Etxeak: bi ikastaro online (ikastaro bakoitza 75 ordukoa eta 3 hilabetetan zehar egitekoa) edo ikastaroaren balio bereko material sorta baten ordezkari daiteke -bidalketa barne-, hala izanez gero.

Oharra: irabazten duen bideoa kolektiboa bada, bideo horretan agertzen direnen ardura izango da saria nortzuk jasoko duen erabakitzea.

Bideoaren edukia

Nork bere hiriko txoko bat erakutsiz euskaraz esaldi bat esatea. Esaldian ezinbestean aipatuko dira:

- Hiria
- Etxepare Euskal Institutua
- Korrika
- Korrikaren aurtengo mezua ("EUSKARA GARA") euskaraz edota tokiko hizkuntzan

Adibidez: "Kaixo Corketik. Etxepare Euskal Institutuaren eskutik University College Cork-en euskara ikasten argi garenok bat egingo dugu Korrikarekin. EUSKARA GARA."

-Bideoan korrikaren logoa ikusi behar da. Ondoren agertzen den estekan deskargatu daiteke:

<https://www.korrika.eus/eu/component/content/article/baliabide-grafikoak?catid=88&Itemid=109>

-Iraupena: 20 segundo, gehienez ere.

Bozketa dinamika

Jasotako bideo guztiak egun berean, **otsailaren 21ean**, zintzilikatuko dira [AEKren Youtubeko kanalean](#). Bozka epea amaitzean Youtuben “Atsegin dut” gehien jasotzen dituen bideoa izango da irabazlea.

Egutegia

- Otsailak 25: Bideoak jasotzeko epea itxiko da (23:59 GMT+1).
- Otsailak 27: Bideoak Youtuben argitaratuko dira eta bozkatzeko epea hasiko da.
- Martxoak 10: Bideoak bozkatzeko epea amaituko da. (10:00 GMT+1).
- Martxoak 11: Bideo irabazlea zein den jakinaraziko da Etxepare Euskal Institutuaren eta Korrikaren webguneetan.

Bideoarekin batera bidali behar den argibidea

- Igorlearen izen-abizenak
- Bideoan ikusten den hiria eta herrialdea
- Unibertsitatearen izena / Euskal Etxearen izena

Bideoak nora bidali

Euskal Etxe bateko kidea bazara: euskaramunduan@etxepare.eus

Irakurletza bateko ikaslea edo irakurlea bazara:

irakurletzak@etxepare.eus

Oharra:

1 Etxepare Euskal Institutura bidalitako bideoak norberak zabaltzea ere zilegi da Korrika hasi aurretiko giroa berotzeko. Etxeparek ere zabaltzea nahi izanez gero egin mentzioa Twitterren (@etxepareinst) edo Facebooken (facebook.com/etxepareinst)

2 Korrika 24 bideo lehiaketa eta munduan zehar antolatuko diren Korrikak jarduera independenteak dira eta bakoitzak bere bidea jarraituko du. Korrika bideo lehiaketan parte hartzeko nahikoa izango da azalpen honetan adierazten diren baldintzak betetzea.